

EUSKAL HERRIA
VATIKANOKO ARTXIBOETAN
ETA GUIPUZKOAKO HERRIAK 1733.ean

1. Euskal Herriaren eta hemengo Elizaren historiaren sus-
trai eta biziseinale bila aurtengo hiru hilabete Vatikanoko artxi-
boetan emanik, lehenagoko euskaldunen herriaren eta kristautasunaren arnasa zuri sentiaraztea nahi nuke.

Euskaldun kristauen arduradunak Baiona, Dax, Oleron, Iruna, Kalahorra, Burgos, Santander, Tuter, eta gero Gasteiz, Donostia eta Bilboko gotzainak izap dira. Elizbarruti hauetako albiste bila ibili naiz eta baita aurkitu ere. Vatikanoko artxi-
boak harrigarriak eta handi-handiak dira. JVLilaka cskuiskribu mardule-
tan beti aurki daitezke zer edo zer. Han ihardun genuen buru eta
begi, munduko aide bateko eta besteko 45 ikertzailek, baina
biztanlegoaren arabera, gehienak euskaldunak: 4. Leon XIII.
Aita Santuak Vatikanoko artxi-
boak guztientzat ireki zituenetik
(1881-1884. urteetatik) hainbat historiarik ekin diote hango
agiriak arakatzeko-lanari; baita euskaldunek ere, baina ia beti Eus-
kal Herriarekin zer-ikusirik ez zuten gaiei loturik.

Euskal Herriko agirien albiste asko lortu ahal izan ditugu
batez ere «Bibliothèque des Ecoles Françaises d'Athènes et de
Rome»-k azken ehun urteotan argitaratutako Aita Sarituen Re-
gesta liburuei esker, eta baita «Monumenta Hispaniae Vaticana»
bildurnako zazpi liburuei esker ere. Agiririk gehienak, X. men-
detik XIV.era bitartekoak dira. Hala ere oraindik albisterik asko,

baita milaka ere, lo daude artxibo hauetan; eta nork iratzarriko zain daudenez, astindu egin beharko lirateke lehenbaitlehen.

X-XIII. mendeetako agirietan «Vasconia» edo Guasconia-Gasconia» irakur daiteke, baina beti Iparraldeko euskaldunak edo eta hauen ingurukoak ere aipatzeko.

Neure gogoz hainbat eta hainbat berri aipatuko nituzke, baina orain ezin: han daude XVI. mendetik XX.era bitartean Aita Santuei egindako Euskal Herri osoko Gotzainen eskutitzak. 1732. urtean hemengo Gotzain, komentu-unibertsitate, hainbat eliza eta udalek Ama Birjinaren Sortze Garbia dogmatzat erabakia izan dadila eskatzen. Edo Gaztela-Espainiako erregek armaz Nafarroa bereganatu ondoren, Nafarroa legez eta eskubidez norena ote zen argitu nairik edo, sortutako eztabaidak. Edo eta Euskal Herriko Elizaren kristautasuna; elizbarrutietako azken bost gizaldietako egoera etab.

Zoritxarrez euskaldunen izenak, sarri-sarri datozela oker, desitxuraturik eta lorrindurik esan behar. Eta hau ez Vatikanoko idazlariengatik bakarrik, baita euskerarik ezer ez zekiten Euskal Herriko idazlariengatik ere, hauek baitziren hemendik hara berriak bidaltzen zituztenak. Adibide pare bat ematearren, hauek aipatuko ditut: Arteaga-ren ordez Astorga idazten dute, Urkizaren ordez, berriz, Urquita, etab.

Euskaldunek, beste zenbaitek baino Ian gehiago egin dute herriaren aide, Elizaren aide eta mundu guztian zehar lagunduz Hau egi-egia da eta argi ikusten da.

Euskaldunen artean ez dira gutxi izan, historilari legez, beste Eliza, elizbarruti eta nazioez ikerketak egin eta idatzi dituztenak; baina Euskal Herriko Elizaz ihardun dutenak ere gutxi izan dira.

Azken 20 urteotan batzuk Ian bikaina egin badute ere, oraindik ikerlanerako Euskal Unibertsitatearen behar larria nabari da. Ez da guretzat ohoregarria, euskaldunen ardurarik ez duten kanpoko irakasle eta Gotzain asko ere horretan sarturik ikustea... Askotan pentsatzen dudana zera da: Zergatik ez elkarlanean (Euskal Elizbarrutietako artxibuzainen, erlijio-ofdenetako

artxibuzainen, irakasleen eta historilarien artean) aldizkari bat sortu, Euskal Elizaren alderdi historikoa landuko lukena? «Vasconia Sacra» bezalako bat zergatik ez? Horrela egiaren sustraiak hobeto eta argiago azalduko lirateke. Argi eta ozen esan beharrekoa deritzat ondorengo honi: Ez dago azken 15 mendeetako Euskal Herriaren historia benetakoa egiterik Elizaren edo eta kristautasunaren historiari gabe; bestela historia maneiatu eta sasi-historia besterik ez izateko arriskua luke. Kristau gizon-emakumeak Euskal historiaren protagonista izan dira, eta Eliza historia horren arirna eta ardatz izan da, motor baten antzera eragile bihurturik.

2. Herriaren eta kristautasunaren historia jakiteko garrantzi handikoak diren agiri batzuez idatzi nahi nizuke orain: «Relationes ad limina», hau da: Gotzainek lau urterik lau urtera edo bost urterik behin Erromara joan behar izaten zuten eta han Aita Santuari euren Elizbarrutiko gorabeheren berri zehatza eman. Kontaketa edo «Relatip» hauek garrantzi handia dute, berauetan ikusten baita kristauak, apaiz, erlijioso eta laikoak, herria nola bizi zen, haien ondamendiak, kezka, atsekabe, pozak etab.

Euskal Herriaren historirako iturri hauetatik asko edan beharra dago. Oraindino Euskal Herri guztiko Gotzainen «Relatio»etatik Irunako batzuk bakarrik agertu dira. J.I. Telletxeak argitaratu ditu ondorengo urte hauetakoak: 1954 (REDC 21, 1966, 591-617 on.), 1663 eta 1705 (REDC 27, 1971, 665-685 orr.), 1691 eta 1740 (REDC 26, 1970, 99-116 on.), 1734 (zati bat: Scr. Theplogica 16, 1984/1-2, 603-632 on), 1749 (SV 19, 1972, 93-106 on); eta J. Gonik beste urte hauetakoak: 1814 (PV 33, 1972, 293-442 on), 1821 eta 1827 (PV 28, 1967, 428-434 eta 435-440 on), 1877 eta 1882 (PV 36, 1975, 305-366 on). Guztiz 12 informe.

A. Dupuy-k XIX. mendeko Baionako «Relatio»en iruzkin bat agertu zuen, baina testorik eman gabe (BSSLABay 1973, 279-298 on). Nik «Relatio» guztiak bildu ditut: Iruna, Tuterana, Baiona, Kalahorra eta Gasteizkoak, eta Dax eta Santander-eko batzuk ere bai. Olerongorik ez dago; Baionakoak, XIX-XX. mendeetakoak bakarrik.

Gurutzat bcnctan garrantzitsuak diren Kalahorrrakb «Relatio»rik ez dau oraindino inork argitaratu; baina orain Elorriaga apaiz jauna (Dcustuko irakaslea) omen dabil Kalahorrrako «Relatio» guztiak prestatzen, eta hauen argitarapena oso onuragarria izan daiteke Euskal Elizaren historirako.

3. Orain Iruiako 1734.eko «Relatio»a aipatu nahi nizuke. «Relatio» hau luze-luzea eta interesgarria da, ez Elizaren historirako bakarrik, baita herriarnerako ere. Agiri honetan Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat eta hainbat berri aurki genitzake: elizak, biztanleak, benefiziatuak, kapeilutzak, ermitak, ospitaleak, komentuak etab. Gaur, Gipuzkoakoak bakarrik aipatuko ditut. «Relatio» hau, Melchor Angel Gutierrez Vallejo Irunako Gotzainaren izenean egindakoa da, eta 1733.eko argibideak biltzen dira bertan. Ia Gipuzkoa osoko berri ematen da agiriotan. Garai hartan, lurralde hau artzapeztegi bitan banaturik zegoen: Gipuzkoakoa (herri gehienak) eta Hondarribikoa (Hondarribia, Pasaia-Donibane, Lezo, Erreteri (Oretera), Oiartzun eta Irun). J. I. Telletxea jaunak argitaratu zituen zenbait argibide (Bol. R. Soc. Vascong. Amigos del Pais, 1971, 173-176 orr.). Biztanleen zerrendan haurrak ez dira sartzen, adinekoak baizik. «Adulti» jartzen du, baina ezin dezakegu jakin zenbat urtetik gorakoak diren «adulti» horiek.

Gipuzkoako parrokia eta herririk gehienak Elizbarrutikoak izan arren, beste batzuk Kalahorrrakoak cte baziren eta hauek ez dira agiri orain aipatzen ari naizen zerrendan. Adibidez: Anzuola, Aretxabaleta, Bergara, Bidegoian, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Irue-rieta, Leintz-Gatzaga, Arrasate, Oinati, Soraluze, Urretxu etab.

Zerrendan ikusiko duzue, elizarik gehienak Andra Mariari eskainiak dira: 32; S. Martin Gotzainari eskainiak 13; 10 edo IIS. Migeli eskainiak; 8 Jon Bataiatzailearenak; beste horrenbeste S. Pedrorenak; 5 Kristorenak (Salbatore eta Santa Kurutz izenekoak); 4 Donestebe-renak; 3 S. Sebastian-enak; 2 S. Ander eta Santa Katalina martirienak; ondorengo santu hauen izenean eliza bakar bat ageri da: Martzial, Emilian, Erroman, Engratzi, Laurentzi, Fe, Nikola eta Bingen.

Herriak	Elizaren deit	Benefiziatur	Kapeilautza	Gaisotetxea	Baselizak	Ekintza elizkoleiako	Bizirik zirenak komenturak	Emakumezko komenturak	Adinekoak
Abaltzisketa	Jon Bataiatzailea	2	4		2				412
Aduna	Andra Mari	2	2		1				276
Aizarna	Andra Mari	3			8				500
Aizarnazabal	Done Mikel Aingerua		1		3				220
Albiztur	Andra Mar. Jasokundea	4	5	1	2	1			620
Alegia	Yon Bataiatzailea	2	6	1	3	1			490
Alkiza	S. Martin, gotzaina	3	1		1				266
Altzo	Salbatore	1	3		1				137
«	Andra Mari								96
Alza	Done Martzial		4		2				600
Alzaga	Done Mikel Aingerua	1			1				112
Alzola	S. Roman								80
Amatsa-Billabona	S. Martin, gotzaina	3	5	1	2				600
Amezketza	S. Bartolome	2	3		1+2				1000
Andoain	S. Martin, gotzaina	3	12	1	2				1000
Anoeta	Yon Bataiatzailea	2	5		2	1			170
Arama	S. Martin, gotzaina								61
Arriaran	S. Pedro, apostolua		3		1				180
Arrona	Donestebe		1		2				367
Askitza	S. Martin, gotzaina		1						120
Asteasu	S. Pedro, apostolua	6	4	1	2				800
Astigarraga	Andra Mari	1	1		2				452
Astigarreta	S. Martin, gotzaina				1				146
Ataun	S. Martin, gotzaina	2	4		4	1			1300
Aia	Donestebe	5	12	1	5				1000
Azkoitia	Andra Mar. Jasokundea	9	36+3	1	13	2	(1? 2		2020
Azpeitia	S. Sebastian martiria	7	72	1	10	6	2+1 .1		2500
Baliariain	Andra Mar. Jasokundea	1	2		1				130
Beasain	Andra Mar. Jasokundea	2	1		4	2			712

Beizama	S. Pedro, apostolua	2	3		3	1			433
Belauntza	Yon Bataiatzailea	1	1		1				110
Berastegi	S. Martin, gotzaina	3	2	1	3				750
Berrobi	Done Ander	1	5		1				222
Bidania	S. Bartolome, apost.	2			2				350
Deba	Andra Mari	16	11		5	1			500
Donosti	Andra Mari	80	52	2	5	4	3	3	1500
»	Done Bingen								2500
»	S. Sebastian, martiria								300
Eldua	Andra Mar. Jasokundea		1						60
Elduaien	Done Engratzi, bir-mar.	1	4		1				220
Errezil	S. Martin, gotzaina	3	11		4				900
Errenteria	Andra Mari	7	13		3	3	1	1	800
Ezkioga	Done Mikel aingerua	3	2		2	2			460
Gabiria	Andra Mari	5	5		4	1			620
Gainza	Done Mikel aingerua	2	2		1				230
Gaztelu	Andra Mar. Jasokundea	2	2		1				190
Getaria	Salbatore	13		1	7				800
Goiaz	Andra Mar. Jasokundea		1						130
Hernani	Yon Bataiatzailea	5	16	1	4	2		2	1400
Hernialde	Andra Mari	2	2						195
Hondarribia	Andra Mari	10	7	1	7		1		1750
ibarra	S. Bartolome, apost.	1	3		1				280
Ikastegieta	Done Laurentzi								80
Idiazabal	Done Mikel aingerua	2	6+2		7	1			770
Igeldo	S. Pedro, apostolua		1						120
Irun	Andra Mar. Jasokundea	6		1	5				1800
Irura	Done Mikel aingerua	1.			2				100
Itsasondo	Andra Mar. Jasokundea	2	3+1		2				287
Itsaso	S. Bartolome, apost.	2	2		3				351
Izlar	Andra Mari, Jaink. Ama				6				600
Larraul	Donestebe	1	2						165
Lasarte	S. Pedro, apostolua		1+1					1	250
Lazkao	Done Mikel aingerua	2	5		3	3	1	1	600
Laurgain	Done Mikel aingerua	1	1		1				150
Leaburu	S. Pedro, apostolua	1							120
Leg'azpia	Andra Mari	2	6	1	2				800

28

/> -><

Legorreta	Salbatore	2	11	3	1			400
Lezo	Yon Bataiatzailea	4	4	12-				475
Lizartza	Done Katalin, bir-mar.	2	2	1	2			300
Mendaro	Andra Mari		1				1	150
Mutiloa	Done Mikel aingerua	1			1			335
Mutriku	Andra Mar. Jasokundea	11	8	1	12		1	1220
Oikina	S. Bartolome, apost.							140
Olaberria	Yon Bataiatzailea		1		1			199
Ordizia	Andra Mar. Jasokundea	5	13	1		1		510
Orendain	Andra Mar. Jasokundea	2	2		1			260
Orexa	Sta. Kurutz				1			110
Orio	Done Nikola	5	2	1	2	1		490
Ormaiztegi	Done Ander	1	3		1	1		400
Oiartzun	Donestebe	8	22	1	5	6		2473
Pasaia	Yon Bataiatzailea	5	3		2	2		975
»	S. Pedro, apostolua		6		1			400
Segura	Andra Mari	6	21	2	7	4	1	750
»	Done Engratzi, bir-mar.							31
Sorabilla	S. Martin, gotzaina		1		1		1	106
Tolosa	Andra Mari	16	45	1	10	12	1	2300
Urdaneta	S. Martin, gotzaina		1					60
Urnieta-	Done Mikel aingerua	3	10	1	2			700
Urrestilla	Andra Mari	1	10		1			700
Usurbil	Salbatore	4	3	1	3	1		935
Zaldibia	Sta. Fe. birj.	2	1		1			500
Zarautz	Andra Mari	4	7		8	1	1	850
Zegama	S. Martin, gotzaina	3	9	2	8	3		1010
Zerain	Andra Mar. Jasokundea	1	2		1			372
Zestoa	Andra Mari	3			1			450
Zizurkil	Donemilian	2	2		2			470
Zumaia	S. Pedro, apostolua	6	15	2	4		1	400
Zumarraga	Andra Mar. Jasokundea	3	9		5	2		750
»	S. Martin, gotzaina	5	27		4	4		400

Gutziz 345 578 31 255 70 13 15 56879
(605?) (259?) (14?) (5SB29?)

T 1 T »|«-y_{it}

14018 famil